

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Josu Tellabide Azkolain

*Donostia,
Gipuzkoa
(1943)*

Aurkibidea



Biografia



Antigua aldeko Lugaritz auzokoa da, Teresatxo izeneko etxean sortua, lehenagoko zaharrek Luixiaenea deiturikoan. Bizimodu guztia egin izan du auzoan bertan. Etnologoa da lanbidez. Eusko Ikaskuntza eta Aranzadi zientzia elkarteko partaide ere bada. Eta hainbat toponimia bilketa egin ditu, baita ondare historiko-artistiko eta etnografikoaren berreskuratze eta katalogatze lanak ere.

Zintak

DON-138

- **Proiektua:** Bizi dugun Antigua
- **Elkarrizketatzailea(k):** Duarte, Joserra
- **Data:** 2009-06-01
- **Iraupena:** 47 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Emalea:** Tolosa, Iker

Pasarteak

1. Antigua auzoaren historia

- **Erref:** DON-138/002
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:03:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

Bere afizioa tarteko, auzoko historiaz arduratu izan da beti Josu. Antigua Ibaeta eta Lugaritz artean sortu zen. Igeldoko zaharrengandik jaso du Josuk Ibaetari deitzeko "Illeta" ahozko toponimoa. XIX. mendeko errege-bidea egin zenean batu ziren bi auzoak. Kale nagusiak zeintzuk ziren aipatzen ditu, horien historia azalduz.

Transkripzioa

Nere afizioangatik arduratu izan naiz nere auzoko historiaz. Eta, bueno, Antigua sortua zen, ba, Lugaritz eta, bueno, Ibaeta edo Illeta, hobeto esanda, Igeldoko zaharretatik hola jaso izan det, Illeta izena dala, ez

Ibaeta, baizikan... ba dalako "Los Juncas" edo deitzen ziotena, "La regata de Los Juncas" deitzen zioten dokumentuetan. Baiña guk euskaldunak beti Illeta deitu izan degu. Beraz, ba, auzoak sortutako auzo hau, ba, pixkat lehengo mila zortziehun eta berrogeita hamarreen egindako, bueno, hemeretzigarren mende aldera egindako errege-bide zahar baten, Donostiatik Andoainera zijuana, berez ordezkatu zuena Donostiatik Hernanira zoana, hoi goiko galtzarakoa deitzen deguna edo Aietekoa. Ba, egin zenian, auzoa sortu zen bi auzo baserritar haundi hoiaren artean: bat Illeta eta bestea Lugaritz. Eta, beno, gutxi gorabehera Antiguako Matia kaleak edo egingo luke, beno, guk erregiñan palaziua edo Miramarko palaziua deitzen den... Mirakontxatik etortzen zen bide hori, eta hortik joaten zen Matia kalean gutxi gorabehera. Gero hortik Aizkorri kalea deitzen deguna. Bueno, guk ez degu Aizkorri kalea... eta hortikan... deitu... Eta hortikan gora, auzo hori berriz ere joaten zen, ba, pixkat Lizariturriko etxeen atzetatik joaten zen Zapatarira, eta handikan, Añorgan barrena, Andoainera. Ba, auzoa, Lugaritz, Donostiatik begiratuta, ezkerreko auzoa litzateke, eta eskubikoa, eta Erribera aldiak, Ondarreta eta hori dena, Illeta edo Ibaeta, gaur deitzen degun bezela. Beraz, horrek erdian etxe multzoak sortu zituen, ba, komertziantek txikiak ziala, bentak ziala... Hortik datorkigu Bentaberri ere, Benta Gorriya,... beste batzuek 'e bazian, e? Eta palaziua egin zutenian goian, ba, pixkat eliza 're behera pasa zuten -goien zegoen ermitatxo zaharra, Donostiai izena eman ziona-, pasa zuten behera, eta parrokia egin zen orain dagoen lekuan. Eta hortik auzoa kohesionatzen joan zen eta auzoa sortu.

2. Ibaetako erriberak

- **Erref:** DON-138/003
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:03:38. **Bukatu:** 00:05:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Auzoan zituzten erriberetan igel eta txori asko batzen ziren, baita angulak ere. Bentaberriko polikiroldegia dagoen lekuan bertan Josuk angulak ikusi izan ditu. Beraiek hor, erriberan, artasoroa zuten, beraien etxea kale-baserria baitzen. Igelen soinuarekin hazi eta bizi izan da.

Transkripzioa

Beraz, historiak dira, ba, guk auzo horretan bizitzen giñala. Gero, pixkat e... egin zuten Andoaingo bide hortan... ni sortzez naiz, ba, esaten det, esan det, Teresatxokoa, Zapatarikoa eta eskubi aldea erribera ederrak zeuden. Oroitzak oso... bueno, ez zan... oso pollita zen. Dena igelez beteta. Igelak, ba... esango dek, txoriaz ere bai. Txoriak ere zian milloika. Angulak ere bai neronek ikusiak ditut Lizariturriko etxeen aurretan, e? Eta, bueno, oso... Bueno, gaur egunean ez genuke holako gauzarik hitz egingo, ez? Lizariturriko etxeak oain... ya hain zuzen ere gaur polideportiboa dagoen leku hortan, Bentaberriko polideportiboa dagoen leku hortan nik neronek ikusi izan ditut angulak saldoan sartzen, ibaian barrena barrena. Eta, beraz, ba, hor guk genuen artasoro bat. Porke, azken finean, gure etxea zen kale-baserri bat. Kale-baserria badakizue zer dan, langileak, bueno, beren bizitzarako behar dutena. Beren bizitzan... fabrikako langileen semea

naiz ni, eta, beraz, ba, ezin genuen bizitu, eta etxean genituen txerriak, behiak, oiluak, denetatik. Eta, klaro, hortako artasoroa genun. Eta artasoro hoik Erriberan zeuden. Hortxe ibiltzen ginen gu, erribera hoietan, artua eta babarruna egin eta gure gurasoak eta aiton-amonak-eta ekartzen zuten diruakin, fabrikatik, orduan, hola bizitzen giñan. Ez zan paradisu bat, e? baiño paradisu txiki bat bai, e? Guk... Ni jaio izan naiz eta bizitu izan naiz igelen... igelen zeakin, soinuakin. Gau guztia isildu gabe pasatu zituzten miloika igelak Ibaetako erriberetan. Gaur egunen holakorik ez degu; desitxuratua gelditu da osorik. Eta, gaur, gure gizartea bezela, ba, pixkat historia hola jua da. Horixe.

3. Antiguako "errepide zaharra" eta "errepide berria"

- **Erref:** DON-138/005
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:06:19. **Bukatu:** 00:08:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Haurra zela, gaur egun Zarautz hiribidea den tokia, bidea zen eta han jolasten ziren, beraiek "errepide zaharra" deitu izan diote Handik tranbia pasatzen zen. "Errepide berria", Tolosa hiribidea dena, Francok ekarritako espainiar langile esklaboek egin zuten. Dena dago aldatuta.

4. Eskolaurrea Matian eta Maristen ikastetxea

- **Erref:** DON-138/006
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:08:01. **Bukatu:** 00:09:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolaurrea Matiako egoitza dagoen tokian zegoen eta handik maristetara joan zen Josu. Maristen ikastetxea kultur etxea dagoen tokian zegoen. Bere gurasoek Lizarriturin egiten zuten lan eta hango langileen semeak hara joaten ziren. Eskola publikoa ere bazegoen Erizeko pasealekuan. Baserritarak, aldiz, astoz etortzen ziren egunero San Martinera eta Bretxara; Aginagatik ere etortzen ziren. Maristen ikastetxean fraide autoritarioak zeudela du gogoan.

5. Fraideen jipoiak eta umeen betebeharrak

- **Erref:** DON-138/008
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:10:27. **Bukatu:** 00:12:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

Maristen begikoak ez zirenei, beraien aurkariak zirenei, autoko kamararen goma hartu eta latigo bat balitz bezala, odola atera arte jotzen zituzten. Gelako guztien aurrean egiten zieten hori. Formazioa ere ikasten zuten eta baita erregimenaren aldeko abestiak abestu ere. Igandero mezara eta hilean behin kongregaziora komunioa hartzera joatea derrigorra zen.

6. Jakintza ikastola sortu eta alfabetizatzen

- **Erref:** DON-138/009
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:12:32. **Bukatu:** 00:13:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

1960. urtean bukatu zituen oinarrizko ikasketak. Langileen seme-alabek normalean ez zuten batxilerrik egiten eta beraiek kabuz ikasi behar zuten, akademietan-edo. Antiguako Jakintza ikastola egin zutenean alfabetizazioa lantzen hasi ziren "lehen urrats" deituriko programa baten bitartez.

7. Antiguako langileak

- **Erref:** DON-138/011
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:14:00. **Bukatu:** 00:16:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Josu auzotik kanpo egin izan du lan, Hernanin. Antiguako langile auzoa zen eta bertako umeak hango langileen seme-alabak. Bertako lantegiak aipatzen ditu, zer egiten zuten eta zein ibilbide izan zuten.

8. 1959. urteko Gurelesaren aurkako protestak

- **Erref:** DON-138/012
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:16:40. **Bukatu:** 00:19:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Gurelesaren zentrala Antiguan zegoen. 1959. urtean aurreneko manifestazioak izan ziren Antiguan eta Donostian. Ordura arte bazeuden esne-zentralak, bat beraien etxe azpian. Gurelesaren zentrala Suchard txokolate-lantegiaren lurretan hasi ziren eraikitzen. Baina azkenean Igarara joan ziren.

Orduan baserritarrei kalean esnea saltzea debekatu zien eta orduan Josuk gogoan dituen administrazioaren kontrako manifestazio handienak ezagutu zituen, 1959an. "Gurelesa la mejor agua de mesa" oihukatzen zuten. Lizarriturri ere izan ziren protestak, baina ez zuten horrenbesteko oihartzunik izan.

9. Antiguako kanalak, uholde arriskua

- **Erref:** DON-138/016
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:21:23. **Bukatu:** 00:22:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Bi kanal zeuden: Portuetxetik, Añorgatik, Konportatik eta Lizarriturriko etxeetatik datozenak. Denak erriberak ziren eta dena urez beteta zegoen. Ura noraino ezagutu duen azaltzen du. Uholderen bat gertatuz gero, arriskua dagoela uste du berak.

10. Auzune bakoitzak bere kuadrillak zituen

- **Erref:** DON-138/018
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:23:06. **Bukatu:** 00:24:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Umetan ez zuten jolasteko parkerik, ez zuten horrelakorik ezagutzen. Auzune bakoitzak bere kuadrillak zituen. San Juan bezperako sua, adibidez, etxeka edo kuadrillaka egiten zuten.

11. Ezeiza sagargotegiko istiluak

- **Erref:** DON-138/020
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:24:22. **Bukatu:** 00:24:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Ezeiza sagardotegian eztabaida gogorrak eta bortitzak izaten ziren. Bere aitonari entzuna zion hori, labankadaka aritutakoak ere ezagutu zituela han.

12. Umetako jolasak

- **Erref:** DON-138/021
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:24:56. **Bukatu:** 00:26:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Beraiek txapetara, "bertan txulo"ra, "txorro morro"ra... jolasten ziren. Neskak aparte aritzen ziren, eskolan ere ez baitziren elkarrekin egoten.

13. Ostegunak: neskameen egunak

- **Erref:** DON-138/022
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:26:00. **Bukatu:** 00:27:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Aisia » Jai-giroa

Laburpena:

Gaztetan kuadrillan ateratzen hasi ziren. Ostegunetan erdi jaia izaten zen, eta neskame zeuden neskak jai egiten zuten, "el día de las chachas" esaten zitzaion. Globoak izaten ziren egun horietako protagonistak.

14. Lanpernatan

- **Erref:** DON-138/023
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:27:25. **Bukatu:** 00:29:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Igeldo aldeko harkaitzetara joaten ziren lanpernatan. Igande goizetan, marea behean zela, lanpernetan joatea abentura handia zen beraientzat. Igeldoko plazako taberna bateko etxekoandreak lanpernak egosten zizkien hamaiketako bezala. Behin handik zetozeela, Guardia Zibilak dena kendu zien.

15. Lagun-kuadrillaren ibilerak

- **Erref:** DON-138/024
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:29:15. **Bukatu:** 00:32:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Hainbat sagardotegi zeuden inguruan eta bere lagun-kuadrillak haietara joateko ohitura zuen. Hondartzara ere joaten ziren, beti toki berera. Hondartzako futbol-txapelketak beranduago hasi ziren. Tuneletik hara beste herri bat zela dio, "Donostiara goaz" esaten zuten tunelaz beste aldera joanez gero. Luistarrak irteten ziren danborradan, baina Josuri hark ez zion erakartzen. Bi elkarte gastronomiko zeuden. San Sebastian egunez Donostiako Parte Zaharrera joaten ziren. "Caravana humorística"n ere parte hartzen zuten.

16. Egundoko uholdeak eta errepikatzeko arriskua

- **Erref:** DON-138/025
- **Iraupena:** 0:04:38. **Hasi:** 00:32:53. **Bukatu:** 00:37:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Josu ez zen kaletarra ezta baserritarra ere. Bere aitona donostiarra zen eta elebakarra zen, ez zekien gaztelaniaz. Konportan bizi zen bera familia eta 1933. urteko Corpus Eguneako uholde izugarrietan, alde egin behar izan zuten handik, bigarren solairuraino heldu baitzen ura. Orduan Josu jaio zen etxera joan ziren, Teresaxora. 1953. urtean berriro ere egundainoko uholdeak egon ziren. 1983. urtean Donostian ez zuten horrenbesteko eragina izan. Aurrera begira, etorkizunean, uste du urak ez duela izango nondik irten eta Ondarretarako hondartzatik irtengo dela dena; dena dago kaiola batean sartuta, ekosistema suntsituta baitago.

17. Apaizgaiak, neskameak eta prostitutak

- **Erref:** DON-138/027
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:38:03. **Bukatu:** 00:41:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Lanbideak » Neskameak
- Aisia » Taberna giroa » Putetxeak

Laburpena:

Neska-mutiko askoren etorkizuna neskame eta apaiz joatea zen. 1914. urtera arte sei bat "neska etxe" edo prostituzio-etxe zeuden. Bere garaiko mutil asko apaizgai joan ziren, eta horietako lauzpabost apaiztu egin ziren. Prostitutak eta apaizgaiak kale bereko espaloi desberdinetatik ibiltzen ziren eta hondartzara ere joaten ziren, oso estampa kurioa zela dio. Seminaristak nola janzten ziren.

18. Gabon eskean

- **Erref:** DON-138/029
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:42:26. **Bukatu:** 00:44:16

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Olentzerotan gabon eskean ibiltzen ziren, baina Olentzero deitu beharrean "Jaiotza" deitzen zioten. Gotzainarengana ere joaten ziren.

19. Auzoko "belarri motxak" eta "kastellanoak"

- **Erref:** DON-138/030
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:44:16. **Bukatu:** 00:46:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

Antiguako auzora emigrante asko heldu ziren Espainiatik: Castillatik eta Andaluziatik, batik bat. "Barrio Chino" deiturikoan bizi ziren, gaizki jantzita zebiltzan eta kipula jaten zutela zioten. "Belarri motxa" euskaraz ez zekienari deitzen zioten, nahiz eta abizen euskalduna izan. "Kastellanoak", aldiz, Espainiatik etorritakoei esaten zien.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com